

Euskal Herria: moteldu beharra

Xabier Etxaniz

Azken urte honen nolabaiteko balorazioa egiterakoan euskal HGLn produkzio moteketa bat izan dela nabaritzen dugu. Jakina, izan dira proposamen berriak, batzuk oso interesgarriak gainera, baina oro har aurreko urteotako ildotik ari garela ematen du. Era berean, euskal haur eta gazte literaturgintzak nahiko sendoa dirudi, nahiz eta krisi zantzuak egon daitezkeela pentsatzeko arrazoiak egon. Azken hau haur txikiarentzako liburugintzan eta estatuko argitaletxe batzuen produkzioan nabari daiteke. Baina, arestian aipatu bezala, sektorea nahiko sendo dagoela esan dezakegu, urtero-urtero euskal liburugintzaren laurdena da HGL, eta argitaratutako liburu askoren kalitatea ere nabarmena da. Horrez gain, iaz aipatzen genuen bezala, kontuan izan behar dugu euskal idazle eta ilustratzaileek gure mugetatik kanpo duten harrera ona; Mariasun Landak irabazitako Espainako sari nazionala dugu horren adibide garbia.

Azken hilabete hauetan ez da

euskal haur eta gazte literaturan aparteko gertakaririk izan. Bilduma berri batzuk sortu dira, beste batzuk aldatu (estetikoki edo estiloan); komunikabide batzuek haur eta gazte literatura lanak erabili dituzten beren produktuak bultzatzeko, eta abar. Baina, itxura nagusia behintzat lehen bezala gaudela da, apustu arriskugarririk ez, jausirik ez... eta literatura kalitatea zaindurik begia merkatuari kendu gabe.

Baina, hala eta guztiz, azerketa zehatzago eginda, eta zehetasunetara iritsita, aurten ere aldaketak eta berrikuntza franko egon direla ikus dezakegu. Berrikuntzak... eta gabeziak, denetatik egon baita azken urte honetan, eta hauek guztiak aztertuz saiatuko gara gure oraingo egoera hobeto ezagutzen. Jakina, gertakari guztien artean nabarmene-

na, zalantzarik gabe, *Krokodiloa ohe azpian* (Alberdania, 2002) liburuagatik Mariasun Landak irabazitako Espainako sari nazionala dugu, euskal idazle baten irabazten duen lehen aldia, eta sariz beteriko urteari amaiera eman zion ospakizun paregabea.

Hala ere, poztasunak izan ziren bezala, azken urte honetan kezkatzeko arrazoiak ere izan dira.

Albumen krisia

Desclée de Brouwer edo Erein argitaletxeek azken boladan haur albumak bultzatzeko eginiko saioen ondoren, eta beste batzuen koedizioak (batez ere Kalandraka argitaletxe galiziarren lana aipatu behar), azken urte honetan ez da euskaraz sorturiko albumik plazaratu. Era be-

rean, beste herrialdeetako argitaletxeekin egindako koedizioen kopurua murriztu egin da. Egia da zenbait argitaletxe (Tartalo, haur txikiarentzako liburuetan berezituriko Elkarlanean taldeko argitaletxea, esaterako) aritu direla, aurreko urteetan bezala, haurrentzako irudi liburuak kaleratzen; edo Ibaizabalek Edelvives etxeak plazaraturikoren bat edo argitaratu duela euskaraz, eta Hiria eta Alberdania argitaletxeak ere hasi direla honelako liburuak plazaratzen, baina hau guztia kontuan izanik ezin da baztertu, edo ezkutatu, arlo honetan dagoen krisia.

Tradizio eza, haur aldizkari-gintzaren krisia (oraindik ere ia inork ez du ezagutzen *Nanai* aldizkaria; *Ipurbeltz* komiki aldizkaria bihurtzeko bidean dugu eta *Kili-kili* ikastolen elkartearen eskuetan izaniko saioaren ondoren desagertu egin da); baina, batik bat, merkatu legea egon daiteke haur txikiarentzako liburugintzaren kirisi honen atzean. Izan ere oso zaila da horrelako produktuak aurrera ateratzera 700 edo 800 mila lagun mintzo diren hizkuntza batean, eta aurrera egiten badugu (beste arlo askotan bezala) oraindik ere irizpide kulturalak ekonomikoak baino pisu handiagoa duelako izaten da.

Zenbait urtetan albumek oso harrera ona izan dute irakurle eta bitartekarien aldetik, baina urte batzuetan asetu egin da merkaturia eta gaur egun oso zaila da horrelako liburuak errentagarriak izatea (agian liburutegi sare oso eta ona izango bagenu eskoletan eta erakunde publikoetan...).


Honen guztiaren aurrean argi-



MIKEL VALVERDE, GARMENDIA ETA ZALDUN BELTZA, ELKAR, 2003.



ELENA ODRIZOLA, BIDAI KILIKAGARRIA, EREIN, 2003.



JOKIN MITXELENA, ONDARRUKO PIRATAK, IBAIZABAL, 2003.

taletxe batzuek haur txikientzako sail berriak plazaratzeari ekin diote. Hor dago esaterako, nahiz eta haur txiki-txikientzat ez izian, Pello Añorgak idatzi eta Jokin Mitxelenak ilustraturiko Birundan saila, Elkar etxeak plazaratua; edo argialetxe beraren Batela saila, duela urte gutxi kaleratua. Sail honetan argitaratu da Koldo Izagirrek haur txikientzat eginiko lehen liburua: *Anton Kaiku* (Elkar, 2003), hizkuntzarekin jolasatuz eginiko umorezko narrazioa.

Beste alde batetik Aizkorri argialetxeak jarraitu du hain arrakastatsua suertatu zaion Mendi Sorgindua sailarekin. Bertan kaleratu da *Amak plastakoa eman dit* (Aizkorri, 2004), Ana Urkizak idatzi eta Jokin Mitxelenak ilustraturiko ipuin laburra, famili harremanak eta maitasunari buruzko kontakizun intersgarria.

Era berean, eta aurreko urteetan bezala, Gara egunkariak euskaraz eta ingelesez idatziriko haur liburua plazaratu zituen gaboen

aurretik. Argitaratutako hamar ipuinen artean euskal idazle ezagunak aurki zitezkeen, Miren Agur Meabe, Patxi Zubizarreta, Mariasun Landa, Joxe Mari Iturralde, Juan Kruz Igerabide, Antton Kazabon, eta abar. Eta hauetako gehienak ere, Anjel Lertxundi, Bernardo Atxaga, Pako Aristi, eta beste zenbaitzuekin agertu ziren *Berria* egunkariak mimo handiz kaleraturiko haur liburua bilduman. Elena Odrizolak diseinaturiko bilduma horretan, aipaturiko idazleez gain, gure ilustratzaile ezagunek ere parte hartu zuten, hala nola Asun Balzola, Antton Olariaga, Jon Zabaleta, Mikel Valverde, Jon Mitxelena, Mattin, eta abarrek.

6-12 urte bitartean produkzio gehiena


Ikastetxeak dira haur eta gazte literaturaren erosle nagusiak, bai gure bai kanpoan, alde horretatik ez gaitu harritu behar argitarat-

zen den gehiena eskola publiko horri begira egoteak. Gure artean Lehen Hezkuntza esparruan dugu produkzio gehiena, baina horrez hortxe daude lehendik argitaraturiko liburu gehienak. Hala eta guztiz, zenbait argialetxe sail berriak kaleratu dituzte esparru horretarako. Horrela, Erein argialetxeak 8 urtetik aurrerakoentzat plazaratu du Mandolina saila, bertan bi liburu plazaratu dira: Enkarni Genua idazle eta txotxongilogile ezagunaren *Zatoz lehenbailehen!* (Erein, 2004) ipuina, eta Jabier Muguruza idazle eta abeslariaren *Asteburu bat tren zaharrean* (Erein, 2004). Edizioan jarritako arreta eta koloretako irudiak erabiltzeak azken urte hauetan Elkar etxeak markaturiko ildoari erantzun dakioke. Izan ere Elkarrek koloretako irudiak eta edizio zainduak bultzatu ditu bere azken sailetan, hala nola ipuin laburrez osaturiko Kuku sailean —*Bi ipotx gure etxeko sofan* (Elkar 2004)—, Arantxa Iturbek

idatzia, edo *Aitona parapentean* (Elkar 2004), J. Ormazabalena, horren adibide dira edo Kirmen Uriberen eta Mikel Valverderen artean egin eta Ameriketara joaniko euskal artzain baten abenturak biltzen dituen saila: *Garmendia*. Protagonistaren izena daraman sail honetan lehen liburua plazaratu da, *Garmendia eta zaldun beltza* (Elkar, 2003), bertan hainbat abentura jasotzen direlarik umore eta zinemagintzaren aipuez zipriztindurik.

Baina Elkar argialetxeko honako sail hauek bultzatu diren bitartean, beste batzuk desagertu egin dira, haurrentzako Miru sailean ez da liburu berririk argitaratu azken urte honetan eta gazte literaturako Branka ezagunaren ordez beste sail berri bat kaleratu da.

Bere haur eta gazte liburuak birmoldatu dituen beste argialetxe bat Pamiela etxe nafarra dugu. Tamaina Ttikia bilduma bi sail berritan bereiztu da, haurrentzat eta gazteentzat, estetika



eta aurkezpen berriarekin. Haur saileko berrien artean aipagarriak dira Xabier Olosoren *Pupuan trapua* (Pamiela, 2004) poema liburua, eta Manu Lopez Gasenik eginiko *Alizia haurrentzat* (Pamiela, 2004) edizioa. Azken honetan Lewis Carrollek bere *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* argitaratu eta 25 urte beranduago eginiko adaptazioa aurki dezakegu garaiko irudi kolorestatuetan.

Beste argialetxe batzuek arrakastatsuak zaizkien bildumekin jarraitu dute, esaterako Ibaizabal etxearen "Matxinsalto" saila. Bertan plazaratu dira hainbat lan Antton Irusta (*Itsasoaz bestaldeko ipuinak*, 2003), Iñaki Zubeldia (*Txikiak baina bixkorrak*, 2003) edo duela gutxi utzi gintuen Jose Mari Satrustegi idazlearen lanak (*Oihan txikiko mamuak*, 2003), beste batzuen artean. Etxe berak bere Paper Txoriak sailean plazaratu lehen aldiz euskaraz sorturiko lan bat, *Max bazterrak nahasten* (Ibaizabal, 2003). Laida Martinez Navarro idazle gaztearen opera prima honek Lazarillo 2002 saria irabazi zuen euskaraz sari hori irabazi den lehen aldian.

Era berean Bilboko Desclée

de Brouwer argialetxeak jarraitu du bere sailean itzulpenak eta sorlanak plazaratzen. Azken hauen artean aipa daitezke Ruben Ruiz (*Azken giltza*, 2003) eta Txabi Arnal (*Kroa-Kroa! Kroaziako printzesa*, 2003) idazle gazteak edo idazle gisa lehen aldiz aurkeztu zaigun Asisko Urmeneta ilustratzaile ezaguna historiaurrean giroturiko ipuin batekin (*Sugea lilipean*, 2003), eta gaia, bortxakeria eta gizakia, baino interesgarriagoa iruditzen zaigun idazketa bereziarekin.

Arlo honetako beste idazlan garrantzitsu batzuk aipatzekotan, ezin utzi bazterrean gure hiru idazle klasikoren lanak: *Txano Gorritxo eta Amona Basatia* (Edebé, 2003), Txano Gorritxoren bertsio berri honetan, Juan Kruz Igerabidek gaia aldatzeaz gain, egitura berritzailea ezarri du; *Hamsterra eta gangsterra* (Edebé, 2003) Karlos Santistebanen abentura liburua dugu bigarren lana, eta arlo honetako azken ekarpena Patxi Zubizarretaren Usoa saileko azken liburua dugu: *Bidaia kilikagarria* (Erein, 2003). Liburuan Usoa, gero eta helduagoa dena, bidaia batean aurki dezakegu, baina fisikoki bidaiatzeaz gain nortasunean eta

maitasunean ere bidaiatzen duen neskatoa aurki dezakegu. Idazle "klasiko" hauen ondoan aipagarria da beste idazle berri batean *opera prima*, Maite Frankoren *Ixone isilik* (Aizkorri, 2004). Lehen pertsonan idatziriko narrazio honetan goiz bateko gertakariak agertzen zaizkigu tonu, kontaketa eta denboralitatea egoki erabiliz. Zalantzarik gabe, urteko ustekabe eder horietako bat izan da liburu hau.

Baina aurreko horren guztia-oren ondoan hainbat argialetxeren gelditasuna aipatu behar da. Alberdania, SM, Anaya edo Alfabara-Zubia etxeek ia-ia ez dute ezer argitaratu euskaraz azken urte honetan.

Gazte literaturaren une goxoa

Arlo honetan, gazteentzako liburuetan, izan dira euskaraz azken boladan aldaketa gehien. Behar bada arestian aipaturiko lehen hezkuntzako esparruaren asetzea, Galtzagorri elkartearen bezalakoekin ekimenez (hor daude irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainak, Liburu gazte programa, eta abar) edo euskaraz gazte

literaturan zegoen hutusune historikoagatik, kontua da aldaketa nabarmenak izan direla azken urte hauetan.

Aztertzen ari garen bolada honetan ere kalitatezko egileen liburuak itzuli dira, H. Mankell, F. D'Adamo, R. Barrufet, D. Ellis, A. Fernandez Paz, G. Llobet, P. J. Hernández, G. Lienas, eta abarren lanak ditugu adibide argiak. Gainera, edizio eta itzulpen zaindua-koak ditugu hauek, eta horrela euskal irakurleak euskarazkoak gain bestelako gaiak, estiloak eta autoreak irakurriz goza dezake. Carlotaren egunkaria irakurri ahal du euskal irakurle gazteak, baina baita iqbalen historia ezagutu, Galiziatik datorkigun Aire beltzarekin ikara izan eta beste mila toki, giro eta istorio ezagutu. Horiekin guztiekin batera euskal idazlearen lanak dauzkagu, batzuk gainera idazlan bat baino gehiagorekin, hor daude, esaterako F. Morillo eta A. Kazabonaren kasuak. Azken honek gazteentzako lau liburu argitaratu ditu 2003ko udatik 2004ra; berak idatziak dira *Pirtzina zilborrean* (Elkar, 2004) telefono deiez osaturiko lana, *Urtziren diarioa* (Ibaizabal, 2003) diario moduan idatzitako gaur egungo familia eredu-eruei buruzko lana, *Kaixo, Kattin!* (Elkar 2003), eskutitzen teknika erabiliz borroka armatua eta gazteei buruzko idazlan guztiz interesgarria, eta, beste tonu, beste gai, beste estilo bateko *Erotik* (Aizkorri, 2003) ipuin bilduma. Irakurleak igarriko zuen bezala hitz jokoaren bidez, egoera bitxien bidez jolas egiteko lana (Jokin Mitxelena ilustratzaileak, bestalde, ederki osatzen duena irudiekin ere gauza bera, jolasak, eginez).

Fernando Morillok, bere alde-rik, azken Euskadi saria gazte nobela batekin irabazi ondoren, bi obra gehiago eskaini dizkigu aurrekoen ildotik. Alde batetik gazte abentura liburua dugu —*Arriskupean!* (Ibaizabal 2003)— eta bestetik, sexu eta maitasun harremanei buruzkoa: *Eta ni*

zer? (Elkar, 2003). Azken liburu honek, 16 urteko neska baten egunerokoa dena, Elkar argitaletxearen sail berri bati hasiera eman zion, "Branak" haren ordezkotako Taupadak sailari; bertan hiru azpisail aurki daitezke, koloreen arabera bereizirik, maitasun istorioak, poliziakoak eta misteriozkoak, eta azkenik, gainerako guztiak.

Elkar etxeak, bestalde, Xaguxar bilduman 12 urtetik gorakotzat bi liburu argitaratu ditu: *Basalimoien usaina* (Elkar, 2003) Felipe Juaristik idatzia eta Txilukiren *Osaba Bin Floren* (Elkar, 2003), lehenago, kapituluak, argia ikusi zuena *Egunkarian* eta *Berrian*.

Arrate Egaña —*Logurepeko munstroak* (Erein 2003)— eta Ana Urkiza —*Ondarruko piratak* (Ibaizabal 2003)—, euskal haur eta gazte literaturan gogot-

su ari diren idazleak ditugu eta horren lekuko dira urtero argitaratzen dituzte lanak.

Iban Zaldua ere, helduentzako zenbait liburu argitaratu ondoren haur eta gazteen arlorat hurbiltzen ari da, horren froga bere bigarren liburua, *Ile luzeen kondaira* (Pamiela 2003), gazteentzako abenturazko liburua *Eraztunen jauna* idazlan ezagunaren ildotik.

Baina, zalantzarik gabe, bada honetan gure mugetatik kanpo arrakasta gehien izan duen gazte liburua Joanes Urkixoren *Gerlari zuria* (Elkar, 2003) nobela dugu. Iazko Apirila saria eskuratu zuen abenturazko nobela honetan Irlandako eta Euskal Herriko tradizioak eta leiendak agertzen dira abentura entretenigarri kate luzea osatuz, eta irakurlearen gozamina ziurtatuz.

Erdi aroko abenturak, fanta-

sia, terrorismoaren bortxakeria, harreman sexualak... gure gazte literaturak gero eta eskaintza zabalagoa egiten digu, baina aurreko urteen aldean, aztertzen ari garen tarte honetan idazlan guztiak narratibazkoak izan dira, gainerako literatur generoak bazterrean geratu direlarik.


Gazte eta helduentzat?

Iaz Erein argitaletxeak 16 urtetik gorakoentzako bilduma bati ekin zion Saizarbitoriak idatzitako *Kandinskyren tradizioa* (Erein, 2003) nobelarekin. Oso mugako lana zen, gazte zein helduentzat aproposa, eta edizioa ere horrelakoa zen, gazteentzat erakargarria baina helduek ere gustura hartzeko modua (alegia, gazte literaturan beti erreibindikatzen dena).

Aurreko urteko lanari ekinez bilduma horretan beste bi lan plazaratu dira: Karlos Linazasororen *Mendekuaren graziaz* (Erein, 2004) ipuin bilduma, eta Philip Pullmanen *Tximeleta tatuajea* (Erein, 2003) nobela, 17 urteko Jenny eta Chris gazteen maitasun istorioa kontatzen duen idazlan ederra.

Nire aitaren fusila (Alberdania, 2004) Hiner Saleem idazle eta zinemagile kurduaren nobela helduentzako bilduma batean agertzen bazaigu ere gazte nobela bat izateko elementu guztiak ditu. Lehen pertsonan narraturik gazte baten bizitza kontatzen zaigu, nola bizi zen, eskola, kallean, maitasunean... eta horrez gain kurduen egoeraren berri emanez Saddam Huseinen agindupean; hori guzti hori gazte baten begiradarekin, gazte baten mundutik.

Historias de Miedo



Agian, alderantzizko norabidean, helduak haur eta gazte literaturara hurbiltzeko xedez, aurki daiteke Arabako argitaletxe xume baten ekarpena, Saure etxeak plazaraturiko komiki liburuak, euskaraz haurrek, gazteek nahiz helduek gozatzeko lanak. Chauvel eta Simonen arteko *Popotka*.

Iktomiren irakasgaia (Saure, 2004) dugu horren adibidea.

Ikerketak, jardunaldiak eta beste

Badira urtero egiten diren ekitaldi eta jardunaldi batzuk, eta

pittinka-pittinka ohitu egin gara (eta agian ohitura bihurtu diren neurrian gutxiago baloratzen). Galtzagorri elkarteak antolatutako azken jardunaldiak ditugu horietako batzuk. Gasteizera iritsi ziren hainbat aditu, T. Durán, E. Pascual, J. Urkixo, T. Colomer, M. Aleixandre, A. Epaltza eta abar, beren gogoetekin batera denok hitz egin eta hausnartzeko abenturazko liburugintzaz.

Era beran antolatutako erakusketek, idazle eta ilustratzaileekin izaniko topaketek, idazleak eskolara kanpainak, ikastaroeak, eta antzeko ekintzek lagundu eta bultzatzen dute gure haur eta gazte literatura inoiz ez bezalako egoera honetan aurki dadin.

Gogoeta eta ikerketa, gero eta beharrezkoagoak, eskutik helduta agertu dira EHUKo uda ikastaroetan. Eta, beste arlo batean, ikerketak ere bere lana egiten du unibertsitatean; Genaro Gomezek Grimm anaien ipuinei buruz eginiko ikerketa aipatu beharko litzateke arlo honetan.

Ondorio gisa

Inoiz ez bezalako egoera bate-

an gaudela esan dugu, iaz jasotako saria *Krokodiloa ohe azpian* Mariasun Landaren obragatik dugu horren froga. Gure idazle eta ilustratzaileak gero eta ezagunagoak dira gure artean eta gure mugetatik at. Kanpoan ere gero eta gero itzultzen da, argitaratzen da. Eta liburugintza arloan gero eta gehiago zaintzen da liburuen edizioa, liburuen kalitatea.

Komunikabideen aldetik ere, eta batez ere *Behinola* aldizkariaren ekarpenaz, eta instituzio ezberdinen aldetik ere (bibliotekarioak, irakasleak, unibertsitatekoak, eta abar) lan aparta egiten ari da HGL ikertzeko eta bultzatzeko.

Baina, onartu behar dugu, hori horrela izanik ere gure merkatu txikiak zailtasun handiak jartzen dizkigula. Oso zaila dela haur txikiengazko liburuak kaleratzea, narratibaz gain ez dugula ia-ia beste generorik euskaraz. Eta aitortu behar dugu, egoera hau konpontzeko guztiok lan egin beharko dugula, baina instituzioek, argitaletxeekin batera, neurriak hartu beharko dituztela. Izan ere ez legoke gaizki denok zera aurkituko bagenu ohe azpian... liburu bat. ■



JOKIN MITXELENA, AITONA PARAPENTEAN, ELKAR, 2004.